

## “Auzozaintzako topaketak txokoan egiten ditugunetik, ari da auzoan zerbait berpizten”

### zaintza

Hamaika lagun elkartu dira gaur Antziolako Auzozaintza taldean, duela hiru urtetatik mantentzen duten asteroko hitzorduan. Gonbidatuen zain daude iritsi garenerako; auzora ez omen da herriko jende asko iristen, eta egiten duten lana kontatzeko desiratzen daude. Denen ahotsak jasota daude erantzun hauetan.

### Zertan aldatu da auzo azken urteetan?

Askok aldatu da, eta fase askotatik pasa da. Auzora iritsi ginenean, bizi-bizi zegoen hau: auzo elkarte zegoen eta urtero festak antolatzen genituen. Baina, horrez gain, auzoan bertan egiten genuen bizitza, denda eta taberna ugari genituelako, eta eskola ere bai. Baina gehiengo hori galdu egin dugu.

Hala ere, Txokoa dugunetik hasi dira gauzak aldatzen. Lehen auzo elkarteak erabiltzen zuen lokala da Txokoa, baina azkenaldian Etxe Kaleratzeak Stop taldeak bakarrik erabiltzen zuen. Auzozaintzako topaketak hemen egiten ditugunetik, ari da zerbait berpizten.

### Tarteka elkartu eta ondo pasatzetik harago, auzoan eragina izan duzue, beraz?

Denetarik egiten dugu hemen. Hitz egin, jolastu, dantzatu, egun bereziak ospatu... Aspaldian utzita genituenak; orain desiratzen egoten gara osteguna, biltzeko eguna, iristeko. Noski, txokoko atea irekita izan ohi dugu edozein auzotarrentzat.

Guk nahiko genuke auzoa berriz ere bizirik egotea. Iaz hasi ginen auzoko festak berreskuratu nahian, San Cristobal eguna. Guk geuk antolatu genuen bazkaria eta geroko dantzaldia. Lehen aldia genuenez antolaketan, ez genuen deialdia asko zabaltu, baina aurten irekia egin nahi dugu: *a lo grande*. Horregatik gustatuko litzaiguke auzotarrak ere inplikatzeko antolakuntzan, “jai batzorde” modukoa sortu, egun horretarako erabiliko duguna.

Bestetik, kultur agenda ere erreparatzen dugu astero eta, hala, herrian egiten diren gauza gehiagoren berri daukagu.



Lehen, gutako asko ez ginen hurbiltzera herrira. Orain tarteka bagoaz, eta beste auzoetako jendearekin ere elkartzen gara.

### Zaintzen duten komunitateak sortzeko sortu zen Auzozaintza. Nola zaintzen duzue elkar?



Hemen, kafearen bueltan, harreman sakonagoak egiteko aukera izan dugu; lehen kalean topatzen ginen, dendan, baina ez genuen bata bestea ezagutzeko denborarik hartzen. Orain, ordea, gai askoren inguruan hitz egiten dugu, norberarentzat garrantzitsuak diren gauzak kontatzen ditugu eta ezinegonak ere partekatzen ditugu. Konfiantza giroa lortu dugu gure artean eta elkarri adi egoten gara.

## Auzolana eta aro berria Karabeleko baratzetan

Karabeleko baratzen espazioak fase berri bati ekingo dio maiatzean. Prozesu komunitario baten bidez, lur eta azpiegietura horiek herritarren eskura eta kudeaketara igaro dira, lankidetzeta eta Elikadura burujabetza ardatz hartuta.

Aldaketa sakon baten seinale gisa, espazioari izena aldatzea izango da lehen urratsa. Hernaniarrek hitza izango dute proiektua definituko duen izen berria aukeratzeko orduan.

Proposamenak bidaltzeko galdetegi bat jarri da martxan. Hernani Burujabeko sare sozialetan (Instagram, X eta Telegram) eta webgune ofizialean egongo da eskuragarri.

### Maiatzaren 23an: Auzolana eta bozketa

Prozesu honek mugarri garrantzitsu bat izango du maiatzaren 23an, larunbata.

Egun horretan, hernaniar guztiak deituak daude espaziora hurbiltzera:

**Auzolana:** Lurrak egokitzeko eta lanean hasteko lehen deialdia egingo da goizeko 10:30tan

**Izenaren Erabakia:** Jasotako proposamen guztien artean, bertaratutakoek aukeratu dute, bozka bidez, espazioaren izen berria.

**Gure lurra gure etorkizuna, gure esku!**

## ekhia

## Lau hilabetetan 40.000 salmenta baino gehiago egin dira ekhia erabilita

Urteko lehen 4 hilabeteetan, ekhilur sistema erabilia 40.000 salmenta baino gehiago egin dira; salerosketa horiek milioi bat euro mugiarazi dituzte. Batezbeste, ekhilur erabiltzaile bakoitzak hilabetero 160€ baino gehiago gastatzen ditu herriko dendetan (urtean ia 2000€).

# agenda




### San Isidro egunean, omenaldia, bazkaria eta pala eta pelota partidak

Henase elkarteak eta Udalak egun osoko egitaraua antolatu dute maiatzaren 15erako. 11:30tan Perrapa baserriari omenaldia egingo diote Udaletxeko

arkupetan. Jarraian, bazkaria Goiz Eguzkin. 17:30tan, pala eta pilota partiduak jokatuko dituzte Ezkiagan edo Kiroldegian.

### Enherkomen batzar orokorra




Energia komunitatearen IV. batzar orokorrean, iazko emaitzen memoria azaldu eta 2026ko plangintza ezagutaraziko da.

 Maiatzak 21, osteguna  
 Sandiusterrin  
 18:00

### Bidea herritar taldearen batzar orokorra

Bidea elkarteak Hernani Burujaben oinarri herritarra




bermatzeko ardura du. Urteroko batzar orokorrean, balorazioa eta jarraitu beharreko plangintza adostuko dira.

 Maiatzak 28, osteguna  
 Burujabetzen etxean  
 18:00

### Etxebizitza Behatokia auzoetara hurbilduko da

Etxebizitzaren auziari tokian tokiko beharren arabera

erantzun nahi dio Behatokiak. Horregatik, auzoetan topaketak egingo ditu datozen lau asteazkenetan, auzotarren beharrak jasotzeko.

 Kaxkoan: maiatzak 20  
Antziolan: maiatzak 27  
 Portuan: ekainak 3  
Etxeberrin: ekainak 10  
 17:30-19:00